


Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko urriak 15 • 153. zkā.



Oztopo urbanistikoak

Herriko trabak aztertzen


Larringan gidari eskola

- ✓ Gidatzeko baimen guztiak jaso ditzakezun eskola
- ✓ Klase teorikoetara bereziki zuzenduriko maixua
- ✓ Zure ordutegira egokitzen gara

Informa zaitez:

Bulego ordutegia: goizez 10etatik ordu 1etara
arratsaldez 4etatik 8etara

Basabe Poligonoa F-0-7 • Tfnoa: 943 79 64 50
ARETXABAETA




Zatozte eta gozatu gure
italiar pizza goxoak dastatuz

Tabernako **ORDUTEGIA** astelehenetik ostegunera:
10:30etatik 24:00etara.

Pizzak eramateko eta bertan jateko ordutegia:

13:00etatik 15:00etara eta 20:00etatik 23:00etara.

Astebukaeretan 13:00etatik 15:30etara eta 20:00etatik 23:30etara.



PIZZA ITALIANA

Egurrez berotutako labea

Plaza Arimazuri, 2
20500 ARRASATE GIPUZKOA Tfnoa: 943 79 45 64



Herria ondo prestatua dago oztopo urbanistikoaren aurrean?



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Petri Fortuna
(Langilea)

Mitarte eta Durana kaleak ez daude batera ondo ume kotxeekin ibiltzeko. Tarte luzeagoan itxi edo espaloi handiagoak egin beharko lituzkete.




Eneka Guenetxea
(Ikaslea eta langilea)

Ez, oso gaizki. Espaloi askori jeisteko maila falta zaiola uste dut. Dendak ere orokorrean ez daude batera prestatuak.



Mariano Otero
(Jubilatua)

Orain urte batzuk baino hobeto badago. Baina leku batzuetan faltako dira, eta noski beti hobetu daitezke.



Itsaso Pagoaga
(Ikaslea)

Toki batzuetan faltan botatzen ditut. Plaza eta eliza inguruak ondo daude baina Loramendi aldean falta direla uste dut.



e s k u t i t z a



JABILORENTZAT eskerrik asko

Kaixo! Jabi Mayor Domingo, 27 urteko arrasatear gaztearen lagunak gaituzue. Jabik, maiatzaren 11n aldebiko pneumotoraxa eta biriki-etako distressa jasan zuen eta koman sartu zen burmuinean jasotako kalteen erruz.

Gizarte Segurantzak ez dauka era honetako gaixoak zaintzeko zentzurik eta etxera eramateak egoera begetatibo iraunkorrean gelditzea ekarriko zukeen. Gainera, etxeak baldintza bereziak bete beharko lituzke Jabi zaindu ahal izateko.

Orduan burmuineko gaitzetan espezializatutako zentru pribatu berezien berri eman zitzaion familiari, non Jabik gaixotasunetik guztiz zuzpertzeari lortuko ez balu ere, oinarritzko funtzio batzuk garatzen

lagunduko liokeen hobekuntza lor dezakeen. Zentru horietako bat Arrasateko Aita Menni da.

Zentru honetako mantenuak hilean milioi bat pezetako kostua du eta kopuru ikaragarri horri familiak ezin diezaioke aurre egin.

Ez dakigu zenbat denbora beharko duen osatzeko eta ez dugu gainera horrela gertatuko denaren ziurtasunik. Jabik, ordea, aukera hau merezi duela uste dugu eta lanean hasiak gara hainbat ekintza antolatzen, sortuko diren gastuei aurre egiteko beharrezkoa den dirua ateratzeko. Horretarako dei egiten diogu Aretxabaletako herriari, zuon elkartasunik gabe gure ahalegina alferrikakoa baita, eta elkarlan eraginkorra eskatzen dizuegu antolatuko diren ekintzetan parte hartuaz.

Ekarpen ekonomikorik egin nahi bazenute honako hauek dituzue diru sarrera egiteko kontuen zenbakiak:

Euskadiko Kutxa:

3035.00471.19.047003681.9

Gipuzkoako Kutxa:

2101.0123.92.0122426505

Era berean Aretxabaletako hainbat tabernatan Jabiren aldeko rifak salgai jarri dira.

Jasoko dugun laguntza, ziur bai-kaude etorriko dela, aldeztu aurretik eskertuz,

Jabilon lagunak

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-konseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzatzailea:** Itxaso Barbero. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin. Azala: TOTEM dendak utzitako argazkiak (Arrasate). Egilea: Sara Gonzalez.

Dantza eta gastronomia nagusi domekako festan

Estatuko autonomia desberdinetako folklore eta gastronomiak bat egin zuten pasa den domekan ospatu zen jaialdian. Egunotako eguraldia ikusita, hau ondo baino hobeto portatu zen goizean-goiz ekin eta ilunkarararte iraun zuen festan.

Egun guztian zehar bai herriko eta bai kanpoko jendea erruz hurbildu zen plazara, besteak beste sei

herrialdetako janaria dastatu, eta hauek eskaini zituzten dantza eta musika ekitaldiak entzutera.

Aurtengoa jaialdi hau antolatzen den bigarren urtea da eta antolatzaileek balorazio oso baikorra egiten dute. Alde batetik jendearen partehartze handia izan delako, eta bestetik, honelako egunak integrazioa bultzatzeko egun aproposak direlako.



Haur eskolak egoera larrian

Pausokak deiturik urriaren 8an guraso bilera ospatu zen Udaltxeko ganbaran. Ez zen, ordea, ohiko bilera izan, Gipuzkoako haur eskolen egoera larriaren berri eman eta honen aurrean hartutako jarrera azaldu nahi izan zuten.

Arazoa ez da berria, Foru Aldunditik jasotako dirulaguntza urtez urte murriztuaz doalako, baina egoera erabat larritu da azken egunotan. Aretxabaletako haur

eskolak hiru diru sarrera ditu: gurasoen kuotak, udaletxeko dirulaguntza eta Foru Aldundiko dirulaguntza. Orain urte batzuk haur eskolak Ongizate Sailean zeuden, arazoa Hezkuntzara pasatu nahi izan zituztenean etorri zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuak ez baitu beraien kargu egiterik nahi.

Iazko 120 milioiko diru laguntzaren aurrean, 80 milioi jaso dituzte aurtengoa eta datorren urtean 40 milioira jeitsiko da. Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeak Foru Aldundiak utzitako dirula-

guntza horretaz Eusko Jaurlaritza kargu egin dadila eskatzen du, honek osteraz ezetz.

Egindako bileretan konponbiderik ez zaienez eman datorren larunbaterako, urriak 17, Donostiako Gipuzkoa plazan egonaldia antolatu dute goizeko 11etatik eguerdiko ordu letara. Guraso elkarteak autobusa jarri du eta haurren guraso, senide, lagun eta edonori dei egiten zaio. Honek erantzunik izango ez balu haur eskoletako langileek greba antolatuko lukete urriaren 23rako.

S.T. Itzulpen zerbitzua

ARETXABALETAN

Alemana, frantsesa, ingelesa, umeentzako euskara

Matrikula zabalik: irailaren 26a arte

Informazioa: 943 79 00 69

Bulego orduak: arratsaldean 3,30 pm - 6,30 pm

OSKAR

HARATEGIA



Loramendi, 1

☎ 943 79 71 69

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

EURO *truke* kalkulagailu berria

Aretxabaletako industrialdean kokatutako Diara Design enpresak pezetaren balioa eurotara itzultzen duen kalkulagailua atera berri du. EURO *truke* jarri diote izena eta aste honetan bertan, lantegitik helduko zaien itxaropena dute, arazo batzuk direla eta atzeratu egin baita.

Kaleko jendearentzat

Gaur egun merkatuan eurora itzultzen duten bi kalkulagailu mota daude: arruntak betiko itxura izanik matematikako ariketa samurrenak egin eta emaitza eurora itzultzen dutenak eta espezifikoak bakarrik euroaren itzulpena egiten dutenak.

Diaran diseinatutako hau multzo honetan egongo litzateke eta bere itxuragatik bereizten bada ere, batipat, beste ezaugarri garrantzitsu bat ere badu 3. dezimala borobiltzea, eurotan ematen den emaitzak beti bi dezimal izan behar baititu. Nagusiki euroaren itzulpena egiteko erabiliko bada ere, edozein diru aldaketarako balio du.

Ander Hernandez atxalbarrak dioenez, kaleko jendearengan pentsatuta egin dute, beraz, oso erreza da erabili eta ulertzeko.

Taldeko lana

Batipat bi lagun ibili diren arren, Anderrek taldeko lana egon dela kalkulagailua diseinatu eta bukaeraino eramatean azpimarratu nahi du. Iazko gabon inguruan lanean hasi eta uztailean eman zitzaion azken oniritzia.

Orain noiz helduko zain daude, Txinan egin eta bertatik etorri behar baitira. Bi eratara saltzeko asmoa dute batetik Philips etxeari saldu eta honek denda eta supermerkatuetara ateratzea eta bestetik promozio bidez kaleratzea, hau da, banketxe nahiz enpresei beren izenarekin ateratzeko eskeintzea. Nahiz eta oraindik kalkulagailuaren prezioa jarri gabe egon, merkatuan 1000 pzta.tik beherakoa izango denaren ustean daude.



Diaran diseinatutako EURO *truke* kalkulagailua

Urriaren 20an zabalduko da Consum berria

Bukatzeaz daude Mitarte kaleko Consum Eroski berria zabalduko lanak. Urriaren 20an izango da inaugurazioa eta egun horretan ez dira zabalduko Aralar eta Durana kalekoak. Saltokiak 560 m² ditu eta Kontxi Oiangurenen esanetan, zerbitzu osoa eskeiniko du harategia, arraindegia eta bertan egindako ogi eta goxoekin. Etxez etxeko zerbitzuak, berri, lehen bezala funtzionatuko du. Lehengo langilegoa mantendu eta berriak ere hartuko dira. Ordutegia oraindik finkatu gabe dago.

Institutuak ikasturteari ekin dio

Arrasate-Aretxabaleta institutuak bat eginik ekin dio ikasturte berriari. 700 ikaslelik gora hezitzen ditu Bigarren Hezkuntzako maila ezberdinetan, Derrigorrezkoan (12-16 urte) eta Ez Derrigorrezkoan (LOGSE eta formakuntza zikloak).

Hiru eraikuntza ditu institutuak: DBH, Arrasateko Musakola Herri Eskola ohian ematen da, LOGSE batxilergoak, Arrasateko institutuko eraikuntzan eta formakuntza zikloak, Aretxabale-tako Lanbide Hezkuntzako institutuan. DBHko ikasleentzat subentzionatutako jangela eta garraio zerbitzuak daude, bereziki Aramaio eta Arrasatearrentzat.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Euskal Parlamenturako hauteskundeak

Urriaren 25erako egiten zaie herritarrei deialdia

Urriaren 25ean Euskal Parlamen-tuan hurrengo lau urtetarako ordezkariak aukeratzeko, herritarrak deituak daude. Aretxabaletan bozketa lekua, beti bezala, Kurtzebarri eskola izango da eta goizeko 9etatik ilunkarako 8etara atek zabalik egongo dira.

Barrutia, atalak eta kaleak

Aretxabaletak barruti bakarra osatzen du eta hau lau ataletan banatzen da. 1. ataleko A mahaian 730 biztanlek bozkatu ahal izango du eta B mahaian 642k. Atal honetan sartzen diren kaleak, Bedarreta, Elkano, Guridi, Iparragirre, Larrin plaza, Murubide, Otalora, Santa Kurtz eta Sarasate dira. 2. atalean A mahaian 975 lagunek eta B mahaian 720k bozkatu ahal izango dute. Hemengo kaleak Andra Mari

auzunea, Basabe bidea, Durana, Errekabarren, Geltoki plaza, Herriko plaza, Lausita eta Mitarte dira. 3. atalean A mahaira 777 herritar hurbildu ahal izango da eta Bra gutxiago, 605. Hemen Araba Ibilbidea, Aralar, Basabe poligonoa, Belorrieta, Bizkaia, Gipuzkoa, Gorbeia, Loramendi, Nafarroa eta Zaraia sartzen dira. Azkenik 4. atalean mahai bakarra egongo da eta 637 biztanle daude deituak bertara. Hemen Baintxe, Markole eta Solohandi kaleez gain Aretxabaletako elizate eta auzoetakoe emango dute beren botoa.

18 urtetik gorakoak

Guztira 18 urtetik gorako 5.086 herritarrek bozkatu ahal izango dute Urriaren 25ean. Hauetatik 263, 1978ko martxotik 1980ko urrira




bitartean jaiotakoak, 1996eko Madrilgo parlamenturako hauteskun-deetan botorik ematerik izan ez zutenak dira, 18 urte bete gabe izateagatik. Horiek aurten lehenengo aldiz joan ahal izango dira.

Botua emango den mahai bakoitzean lehendakari bat eta bi bokal egongo dira, aste honetan behin betiko zerrenda aterako delarik. Hauetaz gain partidu bakoitzak ordezkari bat jarri izan du begirale gisa.

Urkuluko azkenengo datuak

Azken egunotan jausitako euriaren ondoren Urkuluko urtegiak aldaketa nabariak jasan ditu. Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arabera euria egiten hasi aurretik ura 330,19 m.tara zegoen %80,64a beteaz. Irailaren 29tik aurrera kontatzen hasiz gero, egunero egindako euriaren baturak 189,2 l/m² eman du. Ondorioz metro 1 eta 70 zm. igo da Urkuluko ura eta momentu honetan 331,89 m.tara dago, bere ahalmenaren %92a beteaz eta 9.191.000 m³. rekin, orain hamabost egun baino 1.000.000 m³. gehiago.

Beste urte batzutako datuekin konparatuz gero, 97an %70,8a zegoela beteta ikus daiteke, 96an %71,92a, 95ean %56a, 94an %68a eta 93raino jo behar da antzeko datuak aurkitzeko, %88a.



Urkuluko urtegia

Oso era politean egin duela euria diote Ur Kontsortziokoek, egoera larririk sortu gabe eta menperatzeko moduan. Hurrengo bi urteetan ez dela inolako arazorik egongo lehorteei dagokionez ere esan dute, "asko aldatu beharko litzateke egoera lehorte arazoak egoteko".

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA



Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

egin berria gabonetan kaleratuko da



Baietz fundazioko kideak

Bost milioi eta erdi batu nahi dira Aretxabaletan eta horretarako 100.000 pezetako akzioak jarri dira salgai

Egin egunkaria ordezkaturiko duen egunkaria eta honen inguruan sortu nahi den proiektu berriaren inguruan aurkezpena egin zuen joan den urriaren 7an hau bultzatzeko eratu den Baietz fundazioak. Bertan Mikel Zuazabeitia Fundazioko kideak adierazitakoaren arabera, Euskal Herrian oso medio gutxi daude benetan Euskal Herrikoak direnak eta oraingo honetan euskal medio sendo bat sortu nahi da. Erronka berria Egin ordezkaturiko duen egunkari berria eta komunikabide sare osotuagoa gabonetarako martxan jartzea da eta horretarako 1.000 milioiko aurrekontua behar da.

1.000 milioi

Uztailaren 15ean Garzon epai-leak Egin egunkaria eta irratia itxi zituenetik, beste komunikabide talde bat sortu eta gabonetan egunkari berria kaleratzeko lanean izan dira Eginen langileak eta honen inguruko hainbat lagun. Emandako lehen pausua, EKHE, Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartearen sortzea izan da. Elkartearen lehen erronka nazio mailako egunkaria martxan jartzea da. Baina ez hori bakarrik, asmo berria komunikabide sare osoa eratzearena da: egunkaria, irratia, telebista... Horrela euskal medioak sortu eta estatu mailako medioei

aurre eginez euskal kulturaren hedapena bultzatu nahi dira. Honi guztiari aurre egiteko 1.000 milioi pezeta eskuratu behar dira. Horretarako 100 mila pezetako akzioak saltzen jarri dira.

Dirua Baietz fundazioak administraturiko du eta herri gehienetan talde bat eratu da dirua herriz-herriz lortu ahal izateko. Horrela Aretxabaletari 5 milioi eta erdi biltzea tokatzen zaio.

Diru kantitate handia bada ere, horrelako proiektu baten aurrean jendeak ondo erantzungo duen esperantza osoa dute Baietz fundazioa eta EKHEk. Azken finean enpresa errentagarri eta autosufizientea lortzea da helburua, krediturik eskatu barik.

Euskal Herri osoko berriak

Aurrean esan bezala EKHEren lehen erronka nazio mailako egunkaria martxan jartzea da, nolabait esateko, Egin berria. Idatzizko komunikabide berria aldaketa dezenterekin iritsiko da Mikel Zuazabeitiak aurreratu zuen bezala. Herrietako kronikek espazio gehiago izango dute eta gainera Euskal Herri osorako egunkari berdina salduko da, Euskal Herri osoko berriekin.

Egunkaria leku bat baino gehiagotan egingo da, eta erredakzioa hiriburu guztietan egongo da. Makinaria non jarriko den, egunkariaren izenarekin batera zehazteko daude oraindik.

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

BENGOA URDAITEGIA

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

©kindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina



Egun zoragarria jubilatuentzat

Eguraldia lagun zutela urriko lehen zapatuan 244 jubilatatu elkartu ziren urtero izaten duten zita garrantzitsura. Goizeko saldaren ondoren, meza nagusia entzun eta kiroletxean bat egin zuten guztiek bazkarirako. Hemen denetarako aukera egon zen, tripa betetzeko, solasaldirako, eta baita animatu zirenentzat dantzaldi ederrak egiteko ere.

Tartean opari ugari banatu ziren: manikurarako estutxea, mukizapi eta pastilak gordetzeko kaxak. Honetaz gain opari gehiago ere zozketatu zen eta batzuk erregaluz beteta joan ziren etxera.

Atxabaltarrak Donostiako marmitako txapelketara

Urriaren 6an jubilatuen elkarteak urtero antolatzen duen Deba Garaiko marmitako txapelketa Uratz Alde elkartearen ospatu zen. Hiru herrietako ordezkariak izan ziren bertan: Antzuola, Arrasate eta Aretxabaleta. Herritik Luis Mari Beitia sukaldari bezala eta Julita Gonzalez laguntzaile modura aurkeztu ziren. Beraientzat izan zen aurtengo edizioko trofeoa eta datorren urriaren 14an Donostian izango den probintzi mailako txapelketan hartuko dute parte. Zortetik onena!




Luis Mari Beitia eta Julita Gonzalez izan ziren Deba Garaiko irabazleak



Kafe hauek denak...
FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira



Egunero herriz-herrri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUE KAFE
XUABEA

Eulali Barandiaran

Ia mende bat bizkar gainean

Pausua moztuta dauka belaunetako desgastea dela eta, eta gogoetak ere saltoka darabilzki buruan, baina oraindik begi argiekin begiratzen du eta oso harrera ona egin zigun sukaldeko leiho ondoan eserita. Eulalik 97 urte ditu eta Aretxabaletako emakume zaharrena da.

Alaben laguntzaz hizketaldi luzea izan genuen.

- Non jaio zinen?

- Bolibarren, Olagoiti base-rrian. Neskabila nintzela gurasoak Apotzara joan ziren bizitzera, han sakristau lanak egiteko eta ni, berriz, Bilbora joan nintzen neskame gisa lanera.

- Eskolara inoiz joan al zara?

- Bai, Bolibarren, denbora gutxian izan bazen ere. Irakurtzen eta idazten ikasi nuen eta ondoren han eta hemen, baita gaztelaniaz hitzegiten ere. 10 urtekin Gasteizera joan nintzen lanera, handik Donostiara eta gero Bilbora. Hemen egin nuen denborarik luzeena.

- Zenbat urtekin ezkondu zinen?

- 24kin Begoñan, Bilbon. Senarra Apotzako zen, baina ni Bilbon ari nintzenez lanean, hara joan eta bertan ezkondu ginen. Ondoren Aretxabaletara etorri ginen bizitzera eta 6 urte inguru egin genituen; bi seme nagusienak hementxe jaio ziren. Amari ataketa batek eman zion ostean eta laguntzeko bizitzera Apotzara joatea erabaki genuen. Hemen, Sakristauenean, izan nituen gainontzeko seme alabak eta urte askoan bizi izan ginen bertan. Gero berriz Aretxabaletara etorri eta badira 29



“Hamar urtekin Gasteizera joan nintzen lanera, handik Donostiara eta gero Bilbora”

urte inguru hemen bizi naizena.

- Orduan nola izaten ziren umeen jaiotzak?

- Etxean noski. Araneko Eulali komadrona bezala ibiltzen zen eta hark lagunduta etxean izan nituen denak. Oso kasu bereziak bakarrik eramaten zituzten ospitaletara, arazo larriak, ... Gazteenak jaio zirenerako praktikantea etorri ohi zen etxera.

- Gerra urteak gogoan dituzu?

- Orduan Apotzan bizi ginen, baina ez daukat aparteko pasa-

dizurik kontatzeko. Gose denporan arabara patatatan joandakoa naiz, baina orokorrean inoiz ez genuen gose handirik pasa. Senarrak Unión Cerrajeran lan egiten zuen eta baleak ematen zizkieten ekonomatoan janari eta gainontzekoak erosteko.

- Garai haietan zer egiten zenuten ondo pasatzeko?

- Erromerietara joaten ginen. Apotzan San Migelak ospatzen dira orain, eta lehen ere bai. Lehen gainera jai handia egiten genuen, kanpoko jende asko etorri ohi zen eta etxean bazkaria prestatzen zitzairen; izugarritzko kazuelakadak egiten genituen. Orain ere joango nintzateke Apotzako jaietara baina ez da gauza bera izango.

- Asko aldatu da Aretxabaleta?

- Izugarri. Portasolen egin genituen hasierako sei urte haietan, gu hirugarren bizilagunak izan ginen Zeledonio eta Elorzatarren ostean. Bainuetxea ere ezagutu nuen, kanpoko jende asko etortzen zen orduan hara. Moja konbentu bat ere bazegoen, frantsesak edo ziren. Behe aldean, berriz, erdiko kalea eta asko gehiagorik ez zegoen.

- Ez zara kalera ateratzen ...

- Ez, belaunetan desgastea daukat eta asensorik ez dagonez, ezin naiz jeitsi. Etxean ibiltzen naiz pasian eta udan balkoian egotea izugarri gustatzen zait. Oraindik zorionez bakarrik molda naiteke etxean jantzi, nire mototsa egin, ... Lanik, berriz, ez dut egiten jadanik, nahikoa egindakoa naiz eta orain seme alabek egin dezatela.

- Zenbat iloba?

- Hamar iloba eta sei biloba.



Borondatezko lana altxorra da

Neuri ere txanda iritsi zait txoko honetako lerroak betetzeko. Ezin naiz atzera bota, beste batzutan neu izaten bainaiz beste batzuegana ate joka hurbiltzen naizena. Eta ez pentsa gero samurra denik herritarren kolaborazioa lortzea, ez horixe! Hori nik bezain ondo daki elkarreetan mugitzen den edonork.

Zenbat aldiz entzun ote dut, mende honen erdialdean, UDA elkarteak sortu zenean, ia herri guztia mugitzen zela honen inguruan. Beste adibide bat gaur egun jadanik antolatzen ez diren ziklo-kross probetan 100 lagun-dik gora mugitzen ei zen antolakuntza lanetan, eta txakur txiki bat jaso barik gainera.

Hori ez da gaurko kontua ordea. Herrian badugu elkarte pilo bat, kulturalak, kirol elkar-teak, sozialak... baina kontu-ratzen al gara gero eta gatxagoa dela elkarte hauek bizirik mantentzea? Mantentze horrek berrikuntza, aldaketa eta borondatezko lan izugarria eskatzen du. Baina zenbat arazo izaten dituzte elkarreetak batzordeko jende berria lortzeko edo ekintzen antolaketarako eta hauetan jendearen kolaborazioa

eta partehartzea lortzeko? Elkarte baten barruan egon artean ez da bat horrelako gauzetaz jabetzen.

Gure gizarte honetan jendearekin astean ordubete eskatzea gero eta zailagoa da. Gelditzen zaigun denbora libre apurra, gure lehen-tasunen arabera antolatzen dugu. Eta jakina, borondatezko lana ordutegi horretan sartzen bada behintzat, normalean azkenengo gelditzen da.

Garbi dago borondatezko lana krisian dagoela. Baina, bestalde, dena ez da horren negatiboa ere, herrian ditugun elkarreetak aurrera dihoaz eta. Herrialde batean gurean dagoen bezalako elkarte bizitza egotea benetan gauza positiboa eta aberasgarria da, harro egoteko modukoa. Gaur egungo gizarte individualista eta konpetitibo honekin apurtzen duten guneak direla esango nuke, taldeko antolakuntza eta borondatezko elkarlana eskatzen dutelako.

Beraz, gure elkarreetak bizirik mantentzea guztion ardura da. Borondatezko lana ez dago modan, baina edozein altxor moduan baloratu egin behar da, hau itzaltzen bada, orduan zer?

Iratxe Bengoa

**Herrialde
batean gurean
dagoen
bezalako elkarte
bizitza egotea
benetan gauza
positiboa eta
aberasgarria
da.**

MIREN

Chunak eta beritasunak

salneurri bereziak

Murubide, 1 ♦ 943 79 67 97

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

Kalean ibiltzeko arazorik?

Oinez ibiltzeko inolako arazorik ez dugunok oso gutxitan erreparatzen dugu eskailera, maila edo igoeretan. Izan ere etxetik atera orduko pasa behar izaten ditugu eta eguneroko errutina besterik ez dira. Oinez ibiltzeko arazoren bat dutenentzat, ordea, eskailera, maila edo igoera hauek berberak buruhauste galantak izan daitezke.

Ez bakarrik buruhausteak, sarritan oztopo urbanistiko hauek zeharkatu ezinezko hesi bihurtzen dira, gizartearengandik aldentu eta baztertzen dituzten hesi eta kartzela.

Eguneroko bizitzan parte hartu eta egokiro moldatzea edozein pertsonaren nahi eta eskubidea da. Sarritan, ordea, pertsona batzuk eskubide horietaz baliatzea zaildu egiten duten oztopoekin aurkitzen dira. Gaur egungo gizartean, biziraupena haundituaz doan heinean, gero eta istripuz edo gaixotasunez mugitu ezin edo zailtasunak dituzten pertsona gehiago daude. Beraz, irisgarritasun baldintzak hobetzeak, bizi kalitate hobea ekarriko du, ez bakarrik mugitzeko ezintasunak dituztenentzat, gizarte guztia-erentzat baizik.

HERRIKO DATUAK

Aretxabaletan, Udaletxeko datuen arabera 77 ezindu fisiko daude 65 urtetik beherakoen artean. Hirugarren adinekoak kontatzen hasiz gero kopurua izugarri hazten da, 800 inguru izanik guztira, 70-75 urtetik gorako edozeinek ibiltzeko arazoak dituelako. Datu hauen aurrean arazoa guztioi dago-kigula argi dago, sarri hurbilean tokatu arte ez konturatu arren.

Orain bospasei urte herriko kalean egoeraz jabetu eta Udale-



Eskaileretan gora nola joan?

txea buru belarri sartu zen beraien konponketan. Bi zatitan burutu ziren lanok, batetik 28 espaloiri maila jeitsi zitzairen, zebra pasuak zeharkatzean saltorik eman beharrik egon ez zedin eta bestetik Otolara kaleko zenbait eskailerei malda paraleloak ezarri zitzairen. Lan hauen kostua 8 milioikoa izan zen eta erdia Foru Aldundiak ordaindu zuen.

Geroztik Aretxabaleta, oztopo urbanistikoei dagokienez, ondo prestatuta dauden herrien artean sar daiteke, beti ere lan asko dagoela egiteko arlo honetan onartuz. "Udaletxeak hornikuntza eta saneamendu plan berezia onartua du eta honen barruan gainazalak konpondu eta zaintzeko konpromesua dago, urbanizatzen ari diren auzo eta kale berrietan oztopo urbanistikorik ez sortzearekin batera" dio Jose Mari Segovia udaletxeko hiri-gintza buruak.

LEGE BERRIA MARTXAN

Abenduaren 4ko 20/1997, iris-

garritasuna sustatzeko legea onartu zenetik ia urte bete pasa da. Lege berri hau apirilaren 24tik indarrean dago eta oztopo urbanistikoak, herrietako zonalde publikoetako trabak, nahiz oztopo arkitektonikoak, eraikuntza publiko eta pribatuetakoak, hartzen ditu bere baitan. Gero eta indar haundiagoa hartzen ari den lege honen helburua, proiektu berrietan eraikitzekeo baimena eskatzera joatean legea betearaztea eta iriskortasuna herritar guztien eskubide gisa errespetatzen ez duten lanen kontra ekingiza judizialak baimentzea da.

Udaletxeko urteroko aurrekontuetan ez dago oztopo urbanistikoenentzat partida konkreturik, lan nagusia hornikuntza eta saneamendu plan bereziaren barnean egiten delako, baina badago egingo diren hainbat lan urbanistikoetarako bestelako partidak.

Jose Mari Segoviaren esanetan Herriko plazako arkupea igoteko malda Kurtzebarri eskolak eskatu zuen, horren beharra zuen pertsona

bat zegoelako. Horrelako eskariak ostegunetako hirigintzako batzordean aztertu, zeinek duen lehentasuna erabaki eta gobernu batzordean aurkezten dira, azken erabakia beti honek baitu. "Jendeak ez dakiena zebra pasu batetako espaloi bakoitzeko maila jeitsierak, 270.000 pzta. balio duela da. Ez da batere lan erreza, lehenengo dena apurtu baldosa, izkina, espaloi eta gero berri berri egin behar baita".

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK

Oztopo urbanistikoei dagokionez arazo garrantzitsuenak konpontuta badaude ere ez da gauza bera gertatzen oztopo arkitektonikoekin. Kurtzebarri eskolak izan ezik Aretxabaleako beste erakuntza publikoek ez dute betetzen irisgarritasun baldintzarik. Kaleko bizimodu normalerako ez dagoela gaindi ezinezko trabarik argi geratu da, kirol edo ekintza kulturaletan parte hartzeko ordea egoera guztiz bestelakoa da. Pistinara edo gimna-

sio berrira, liburutegira edo musika eskolara, zinemara edo hainbat tabernatara sartzeko era bateko edo besteko oztopoak daude, edozein ezinduri atzera eragiteko besteko trabak.

Garbi dago hemen lan handia dagoela egiteko eta poliki poliki egin beharko dena gainera, Abenduaren 4ko 20/1997 legeak erakuntza publikoetako oztopoak kon-

pondu eta berririk ez sortzea eskatzen baitu.

EZINDUENTZAT LAGUNTZAK

Istripua dela nahiz gaixotasuna dela eta mugitzeko arazoak dituzten kasu batzuetan etxeetan ere aldaketak egin beharra tokatzen da. Horrelakoetan udaletxeko ongizate sailera jotzea da egokiena, beraiek informatu eta aholkuak ematen baitituzte. "Foru Aldundiak elbarritasunen bat duten pertsonentzako banakako laguntzak ematen ditu, nahiz eta azken urteotan asko murriztu dirulaguntza hauek" dio Begoña Arenaza gizarte laguntzailak.

Laguntza, teknikoari dagokionez, bi ataletan banatu dituzte aurtengoak: lehenengo atalean automugikortasuna da helburua eta horretarako aulki elektrikoak, aulki bereziak eta autoaren erosketarako nahiz berau egokitzeko dira dirulaguntzak. Bigarren atalean moldaera pertsonala izan da kontutan eta

*"Zebra pasu
batetako, espaloi
bakoitzeko maila
jeitsierak
270.000 pezeta
balio du"*



HECTOR PRIETO

Hector Prietok 15 urte ditu eta aulki elektrikoan egiten du bere kaleko bizitza. Aretxabaleta, beste herri batzuekin konparatuz, oso ondo prestatua dagoela eta orokorrean aulki elektrikoaren duenetik kaleetan bakarrik moldatzeko ez duela inolako arazorik dio. Ez zaio

ordea, hori gertatzen zinemara, gimnasia edo "Jolas lekura" sartu nahi izanez gero. Horregatik lagunek egurrezko maldatxo bat egin diote azken honetara sartu ahal izateko.

"Kurtzebarri eskolan igogailua daukat baina ate batzuk estuegiak dira eta mahaiak ere txikiak direnez aulki arrunt batera pasatzen naute klasean" dio Hectorrek. Herriko plazan dagoen teknologia gelara sartu ahal izateko, berriz, eskolak udaletxeari eskaera egin eta bai hemengo igoera baita plazako arkuperako igoerak ere lortu zituen.

Batzuetan igogailuek ere ez dute arazoa guztiz konpontzen, Hector ez baita igogailuko botoietara heltzen. Horrek beti beste baten laguntzaren menpe bizitzea dakar eta hori ez da batere onuragarria edozeinen autoestimarentzat.



MAITE BLANCO

Maite Blancok 1997ko apirillean izugarrizko istripua izan zuen. Ia irailerarte aulkian egin ondoren bere bizitza, poliki poliki eta borondate eta lan handiz


etxebizitzarako iriskortasuna, etxe barnean mugitzeko egokitzapenak, ezinduei egokitutako altzariak, eta komun, bainugela eta dutxako tresnak erosteko izan dira laguntzak.

Honetaz gain Foru Aldundiak aholkularitza zerbitzua ere badu. "Elbarritu bat etxean mugitu ahal izateko izugarrizko lanak egin behar direla pentsatzen du jendeak eta sarritan oso aldaketa samurrak besterik ez dira izaten". Begoña Arenazak etxean ezer apurtzen hasi aurretik beraiei esatea gomendatzen du, gaur egun gastu haundiegirik egin gabe ezinduen etxeak egokitzeko hainbat tresna daude eta.

Norberari tokatu arte ez gara konturatzen zer den toki batzuetara ezin sartu izatea, leku batzuetatik pasatzeko laguntza eskatzea edo estraposoka eta larri ibiltzea. Gizartea gero eta zaharragoa bihurtzen ari den heinean, oztopo urbanistiko nahiz arkitektonikoei irtenbidea aurkitu beharrean gaude.

ibiltzeari ekin zion. Aulkian guraso eta ahizpak eraman ohi zuten eta beraien esanetan herrian oso ondo moldatu ziren, horretarako prestatua baitago.

"Istripua izan aurretik ibiltzeko arazoak dituztenentzako dauden oztopo eta trabetan inoiz ere ez nuen erreparatu. Sarritan norberari tokatu arte ez gara konturatzen" dio Maitek. Urte eta erdi pasa ondoren aulkian ibili zen garai hura ez du gogoratu ere egin nahi. Oraindik protesi bat dauka ezkerreko hankan baina aise pasatzen ditu eskailera eta maldak, oztopo eta traben gainetik dagoela erakutsiz.



Plazako arkupeetarako igoera.

“Foru Aldundiak elbarritasunen bat duten pertsonentzat laguntzak ematen ditu”

Gizartea gero eta aurrerakoiagoa bihurtzen ari den heinean, bizi kalitate hobea eskeini beharrean aurkitzen gara. Arazoa agintari eta instituzioei dagokie baina baita herritar apaloi ere, konponbide eta emaitzak eskatzeko orduan geure ahotsa daukagulako. Gaur beste bat da, baina bihar ni izan naiteke egoera berean nagoena.




LUIS BARANDIARAN

Aulkiari esku biekini heldu eta egunero bueltatxo bat ematera ateratzeko ohitura du. 89 urte eta hanka bat gerra garaiko zauriek utzitako aztarnez badu ere, poliki poliki aurrera eta

atzera, atzera eta aurrera ibiltzen da. Bastoiak baino ziurtasun handiagoa ematen dio aulkia eta nekatzean gainera bertan eseri daitekeela dio. "Aretxabaleta oso ondo dago pasian egiteko; ibilbide oso dotorea du, Errekabarrenetik atera eta Loramendi kalearekin bat egin arte. Euririk egin ezean hementxe ibiltzen naiz ni egunero".

Etxean ere ez du inolako arazorik, aulkia gorde eta bastoia erabiltzen baitu orduan. Etzeko ataritik kalera ateratzeko, ordea, maila txiki bat dago eta ez dela batere egokia uste du.



Lagun ugari hurbiltzen da gimnasio berrira

Kiroletxeko gimnasio berriak arrakasta haundia izan du

Orain aste batzuk kiroletxeko gimnasio berria martxan jarri zenetik, lagun dexente animatu da bertako makina berriak probatzera. Egia esan lehenengo gimnasioak ez zuen ekipamendu haundirik, baina oraingo honetan hogeit bat makina jarri dira, eta honek ariketak egiteko aukera zabala eskaintzen du. Guzti honek, hau da makinaria berria erosteak, 1.400.000 pezetako gastua suposatu du.

Gimnasioa leku berrian

Makina berriak erosteaz gain obrak ere egin beharra egon da, gimnasioa lekuz aldatu eta lehenengo sauna zaharra eta squash gela zeuden lekuan ipini baita, horrela squash gela bat kenduz. Bestalde, lehenengo gimnasioan ere aldaketa txiki batzuk egin dira, rokodromoa

kendu eta ispilua jarri da eta gela haundi bakarra gelditu da, aerobic, karate eta gimnasia klaseak emateko erabiliko dena. Obra hauetan 2 milioi pezeta gastatu du Udalak. Rokodromoa, bestalde, datorren urteko aurrekontuetan sartzeko asmoa azaldu du Lorenzo Fernandez kirol zinegotziak. Beraz, eskaladarik ezin da praktikatu momentuz behintzat kiroletxean.

Bazkideek aukera zabalagoa

Hemendik aurrera kiroletxeko bazkideek zerbitzu eskaintza zabalagoa izango dute piszina eta gimnasio berriaz. Asier Mugika kirol teknikariaren ustez, gimnasio berriak eta aerobic-ak izan duten arrakasta ikusita, bazkideak aise gehituko dira. "Dagoeneko gimnasioa erabiltzen hasi diren bazkide berriak ditugu", dio.

Squash txapelketa

Aretxabaletako kiroletxeak squash txapelketa antolatu du 16 urtetik gorakoentzat. Txapelketa urriaren 17an hasiko da, beraz, izena lehenbailehen eman beharra dago kiroletxean (943 79 64 61). Prezioari dagokionez, Deba Garaiko kirol zerbitzuetako abonatuak 1.000 pta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 2.000 pta. Esan beharra dago txapelketa hau Deba Garaiko txapelketa zirkuitorako puntuagarria dela.

Mondra-UDA derbia domekan

Datorren domekan, hilak 18, Mondra-UDA derbia jokatu da Atxabalpen arratsaldeko 4,40etan. Partidu honetako sarrerak domekan bertan, aurrez salgai jarriko dira Gurea tabernan eguerdiko ordu batetik ordu 2etara bitartean, nagusientzat 800 pezetan eta jubilatu eta jubenilentzat 300 pta.

Jubenilek Alaves aurrez-aurre Ibarra

Liga Vascako jubenilek Alaves taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak datorren zapatuan arratsaldeko 5,30etan Ibarra futbol zelaietan. Jubenilek 6. ihardunaldia dute oraingo hau, eta orain artean, bat ezik partidu guztiak irabazi dituzte. Alavesak talde indartsua ekarriko duela badaki Daniel Armentia entrenatzaileak, baina beraiek ere partidua irabaztera aterako direla adierazi digu.

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

*Carmen
Fernandez*

ABOKATUA

Belorrieta Auzoa, n° 14 - 4° A
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: (943) 77 05 94
Fax: (943) 79 65 21

Julen Larrinaga

Arraun Lagunak taldeko arraunlaria

Bere ama kostaldean bizi izanak eta familiaratekoak Bermeon izateak eraginik izan dute Julen Larrinaga arraunean hasiteko. Kirol hau probatu zuenetik lau urte pasatu dira eta itsasoak eta arraunak zeharo erakarri dute 28 urteko atxabaltarra.

Aurten Arraun Lagunak talde donostiarrean egingo du denboraldia; helburua: Kontxan sartzea.

• **Itsasotik kilometro batzutara egonda, nolatan arraunean?**

Itsasoa eta kostaldea betidanik gustatu izan zaizkit, eta jakina, arrauna ere bai. Egia esan, Bermeoko lagun batzuk erdi brometan hasi ginen batak besteari desafioa eginez, "ezetz sartu Bermeoko arraunlari taldean". Horrela animatu egin ginen eta proba batzuk pasatu ondoren taldean geunden. Hiru urte egin ditut bertan.

• **Hiru urte Bermeon eta aurten Arraun Lagunak taldera?**

Bai hala da, bi urterako fitxa daukat talde donostiarrean.

• **Eta entrenamenduak egiteko nola moldatuko zara?**

Fisikoki oso ondo gertatuta egon behar da eta horregatik urrian hasita lehen hiru hilabetetan takarran egingo dugu, 16 km egunero. Hurrengo hiru hilabeteak pesak egin eta indarra lantzeko erabiltzen dira gehienbat. Astebukaeretan uretako entrenamenduak egiten ditugu. Gabon ostean ergometroaz entrenatzen hasten da. Oso gogorra da, baina uretan ibiltzeko behar den indarra hartzeko ezinbestekoa.

Uretako denboraldia, berriz, otsailean hasten da, lehenengo batelak, gero trainerilak eta uztailean estropadak.



“Itsasoan teknika behar da eta errekan indarra”

• **Horrelako entrenamenduekin dieta berezirik jarraitzen duzue?**

Bai, medikuak agindutako dieta jarraitzen dugu. Goizetan jaikitzen naizenean bi naranja eta limoi baten zuku hartzen dut. Hamabost minutura 200 ml esne eta 100 gr. zereal jaten ditut. 12,30ak aldera fruta apur bat. Bazkaria ardo pixka batekin egiten dut eta afaldu fruta.

• **Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da, beraz, zerk mantentzen zaitu barruan?**

Bertan sartzen zarenean eta denboraldia hasten duzunean, eraka-

rrita eta barruan harrapatuta bezala sentitzen zara. Traineruak bere saltsa eta erakargarritasuna du. Kostaldeko herrien artean sortzen den giroa ere berezia da, mundu polita da. Gure artean giro ona badago, trainerua aurrera doa. Entrenatzaile eta direktibak, bestalde, arraunlariak mimatu egin behar gaituzte.

• **Zer utzi behar izan duzu arraunean egiteagatik?**

Denboraldi barruan lagunak eta parrandak alde batera uzten ditut adibidez. Bizikletan eta igerian ere ezin dut egin. Honetaz gain udan plaiara ezin dut joan, ezta eguzkia hartu ere.

• **Itsasoa ala erreka nahiago duzu arraunerako?**

Gogorrena errekan entrenatzea da. Dena bare-bare dago eta denbora guztian esfortzu berdina eta indar handia egin behar da. Itsasoak teknika handia eskatzen du. Batzutan olatuak lagundu egiten du, baina alderantziz ere gerta daiteke.

Nik itsasoa ibiltzea dut gogokoan eta denbora txarrakin gainera. Horrelakoetan itsasoa eta haizearen kontra burrukan egitea bezala da, zeozer berezia.

• **Eta aurtengo helburua zein?**

Kontxan sartzea.

• **Trainerurik eta patroirik gustokoena?**

Traineruetan Trintxerpe eta Orio gustatzen zaizkit. Patroia, berriz, Txiki Larrañaga Orikoa.

• **Eta nesken trainerua noizko?**

Iaz Bizkaiko Iberiak atera zuen nesken traineru bat. Errekan mutilen kontra aritu ziren lehian. Niri gustatuko litzaidake nesken arteko estropadak ere ikustea. Aberba animatzen diren.

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeke aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarrizketaren bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzeta lortu behar ditugu.**

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea. Euskararen benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.


Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da. Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

Orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



**eusko
alkartasuna**





Ah ze kuadrilla!

Argazkikoek 20-25 urte baino ez dituzte, 1966koa baita, baina dotore dotore jantzi ziren korbata eta guzti Jesus Mari Bengoari despedida egiteko. Hainbeste mutil galanten artean gustora ikusten dira gero Dorita eta Rosarito. Bazkaria, berriz, Burgalesenean izan zela esan beharrik ez dago.

Argazkian goitik hasita ezkerretik eskumara: **Jose Antonio Jauregi, Gregorio Garai, Jesus Berasaluze, Jesus Mari Bengoa, Manolo Zubillaga, Jose Inazio Bengoa, Jose Luis Urkiola.**

Anjel Iñurrategi, Pedro Larrinaga, Felix Mari Antxia, Jose Luis Aretxaga, (aurrean) Jose Antonio Arenaza, Jose Antonio Elortondo, Jose Antonio Azkoitia.

Bonifazio San Migel, Jose Juan Zubizarreta (eskoriatzarra), Maximo Urkia, Diego Garcia, Luis Agirre, Roberto Aldalur, Rosarito Arce, Pedro Urcelay, Inazio Lopez de Uralde.


Tomas Iturrikastillo, Dorita Arce, Remigio Gastañaga, Alberto Arkauz, Jose Mari Elkoro, Jose Luis Gorostiaga.

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53
ARETXABALETA



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☒ 943 79 38 59

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA



LANA

◆ **Pertsona bat** behar da arratsaldetan **ingelesa** emateko. Tfnoa: 943 79 00 69.

◆ Majisteritza egin duen pertsona batek **klase partikularrak** emango lituzke. Tfnoa: 943 79 06 81.

◆ **Zerbitzaria** behar da. Ahal dela euskalduna eta emakumea. 943 79 16 68 telefonora deitu.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Yoga monitorea.
Ref.13005/3. Bilbo.

Trokelista.
Ref. 13035/3. Durangaldea.

Telemarketing arduraduna.
Ref. 13163/2. Donostia.

4 obrako montatzaile.
Ref. 11783/3. Arabako lautada.

◆ **Lan eskaintza publikoak**

Udaltzaina. Lazkaoko Udala.
Titulazioa:OHO edo baliokidea, B-1 gidatzeko baimena, 2 H.E.
Epea: BOEn argitaratzeko zain.
Oinarriak: GAO 98/9/8.

Unibertsitateko irakasle titularra; berezitasun ezberdinetako 42 lanpostu.
Titulazioa: doktorea.

Unibertsitate eskoletako irakasle titularra; berezitasun ezberdinetako 11 lanpostu.
Titulazioa: lizentziaduna.
Epea: 98/10/22.
Oinarriak: 98/9/28.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

Bekak. Euskal Herriko autonomi elkarte. Euskal enpresak atzerrian ezartzeko praktikak egiteko bekak.
Epea: 98/10/17.

Basauriko Udala. Informatikako erdi mailako teknikaria. Basauriko Udala.
Titulazioa: erdi mailakoa (informatika, injinerutza, fisika, matematika, ekonomia...).
Analista programatzailea.
Titulazioa: erdi mailakoa.
Epea: BOEn argitaratzeko zain.
Oinarriak: BAO 98/9/18



DENETARIK

◆ Leioan pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 943 79 30 61 telefono zenbakira.

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaleta edo Arrasaten. Tfnoa: 943 79 20 61 (Ibon).

◆ Neska batzuk pisu bat (edo gelak) alokatu nahi dute Aretxabaleta. edo Arrasaten. Tfnoa: 943 71 20 72 (Josune).



ETXEBIZITZA

◆ Pisu bat erosi nahi da Aretxabaletan berehala betetzeko. 943 79 32 92 telefono zenbakira deitu.

◆ Pisia salgai dago Eskoriaztako San Pedro auzoko 11. zenbakian, 2. solairua. Intere-satuak deitu 943 71 43 58 telefono zenbakira. (Felis).



LEHIAKETAK

◆ **XI. Orixe bertso paper lehiaketa.** Orixeko Udalak antolatua, hiru taldetan banatuko da lehiaketa: 14 urte artekoentzat, 15etik 20 urte bitartekoentzat eta 21 urtetik aurrerakoentzat. Gaia librea izango da eta nahi hainbat bertso paper bidali daitezke.

Bidaltzeko epea urriaren 18an bukatuko da. Sobre itxi batean originala eta lau kopia bidali beharko dira eta beste batean egilearen izena, helbidea eta telefonoa; izenordea berriz, bietan argi eta garbi azaldu beharko da. Helbidea: Orixeko Udala. "Orixe" bertso paper lehiaketa. 20490 Oresa.

◆ **Jokin Zaitegi itzulpen labur- rren XII. sariketa.** Arrasateko AED elkarteak antolatua, edozein pertsonak har dezake parte eta gaia librea izango da. Lanak AED elkartera zuzendu behar dira urriaren 31a baino lehen. Informazio gehiago 943 77 12 28 telefono zenbakian.


Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA

Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

CONSUM EROSKI
BETI ZURE ZERBITZURA
Durana, 8
Tfnoa: 943 77 17 06
Aralar z/g
Tfnoa: 943 77 17 04
ARETXABALETA

Burukominak jota



Telebista, irrati, egunkari... politikoa han eta hemen, leku danetan daudela esango nuke. Gasteizera joan eta kale kantoi guztiak propaganda politikoz beteta daude. Guztiak proiektu sendo eta ederrak dituzte aho artean. Eskerrak bi aste gelditzen direla hauteskundeetarako!

Hauteskunde kontuetatik ihes eginez, baditugu berri kulturalagoak gure herri inguruan. Untzilako jaiak pasatu dira eta untzilarek ondo baino hobeto ospatu dituzte gainera. Hilaren lehen asteburuan bola txapelketa jokatu zuten auzoko bolatokia. Dakizuenez bolatoki txukuna daukate untzilarek, eta bertan 60 partehartzaile ibili ziren nor baino nor. Irabazlea emakume bat izan zen: **Aitziber Olaizola** elgoibartarra bost txirlorerekin. **Iñaki Elorza** atxabaltarra ere bost

txirlorerekin inguruan ibili zen bigarren postua eskuratuz. Hirugarrena ere lau txirlorerekin atxabaltarra izan genuen: **Fernando Elorza**. Azken postu honetan lagun mordoxka sailkatu zen baina parrakoak erabaki zuen hirugarren postu hau. Azkenik Murumendi elkarteko (auzoko elkarte) lehen bazkide irabazlea ere, lau txirlorerekin, **Fernando Beitia** Untzilarra izan genuen. Bola kontuetan untzilarrak indartsu daudela erakutsi digute, argi ibili beharko dugu hemendik aurrera.

Herrian bertan, bestalde, ludoteka aspaldi zabaldu zen. Barrutik itxura berria erakusten du, bizi bizi eta kolorez beterik gelditu da herriko bi artistak hormak margotu ondoren. **Mikel Arroiabe eta Ainhoa Cabero** dira ludotekari itxura artistikoa eman diotenak.

Beste kontu bat ondoren, kostata baina herriko telebista badoa aurrera. Kamarak laster helduko dira eta kameralari berria nor izango den dagoeneko erabakita dago. **Haritz Altube** gatzagarra izango da telebistako kameralari lanak beteko dituena. Laster kamararekin kalean ikusiko dugu. Hurrengo pausua telebista piztu eta Aretxabaletako telebista martxan ikustea izango da. Ez dago hain urruti!

Bukatu aurretik aholku bat, perretxikotan fan bai baina onak bakarrik batu.

Liburutegiko txokoa

Irailean sartutako liburu berrien zerrenda

0 urtetik aurrera

- En casa antes de anochecer / Ian Beck
- Mil años de cuentos del mar

6 urtetik aurrera

- ¿Hay algo más pequeño que una musaraña? / Robert E. Wells
- Hola pequeña ballena / A. Bröger, Gisela Kalow

8 urtetik aurrera

- Atea kox-kox / Juan Kruz Igerabide
- Lapitz baten ibilerak / Maite González Esnal
- Pedro y el lobo / Miguelanxo Padro

10 urtetik aurrera

- Ba omen zen errege bat / Gabriel Janer Manila
- Hago isilik Percy! / Judy Corbalis

12 urtetik aurrera

- Itsasoko izarra / María Jesús Leza
- Kamoren ihesaldia / Daniel Pennac
- Hockeyko atezaina / Rodrigo Muñoz Avia

14 urtetik aurrera

- Begirada / Carlos Puerto

Helduak

- Bizkarrean tatuaturiko mapak / Harkaitz Cano
- El bucle melancólico / Jon Juaristi
- Gauza guztien zergatia / Quim Monzó
- El hijo de Rosemary / Ira Levin
- Jon Mirande orhoituz (1925-1972): antologia / Patri Urkizuren edizioa
- La mujer que se daba con las puertas / Roddy Doyle
- Npsotras que nos queremos tanto / Marcela Serrano
- Las perlas peregrinas / Manuel de Lope
- Piazza d'Italia / Antonio Tabucchi
- El socio / John Grisham
- La tribu de los Krippendorff / Frank Parkin

Komikiak

- Juan Buscamares: el agua / Félix Vega
- La puerta: Las aventuras de Max Fridman / Vittorio Giardino

Bide batez gogorarazi nahi dizuet epez kanpo etxean libururik duzenok, buelta zeko mesedez.

Joseba Lopez de Armentia

URRIA

18

20-21

17

domeka

zapatua

AKANPADA DEGURIXAN

Zentral Eolikoaren aurkako akanpada Degurixan arratsaldeko 5etatik aurrera. Igotzeko arratsaldeko 3etan Arrasateko Portaloian bilduko da jendea.

SQUASH TXAPELKETA

Urriaren 17tik aurrera Squash txapelketa Aretxabaletako kiroletxean. Deba Garaiko txapelketa zirkuitorako puntuagarria izango da.

ELGEARA MENDI MARTXA


Zentral Eolikoaren aurkako mendi martxa. Irteera goizeko 9etan izango da Urkulu, Araotz, eta Eskoriatza eta Barrundiako plazetatik. Aumategiko tontorrean eguerdiko 12etan elkartu eta bertan salda, hitzaldiak eta bestelakoak izango dira.

19

astelehena

ODOL EMATEA

Odola emateko azken eguna izango da. Osasun Zentruan arratsaldeko 4,30etatik 8etara. Anima zaitzte!



JUBILATUENTZAT HITZALDIAK

Basotxoko Jubilatu Taldeak **etxeko erremedioen tailerra** antolatu du. Hitzaldiak aste honetan hasi badira ere, datorren astearte eta asteazkenean jarraipena izango dute. Basotxoko telebista gelan arratsaldeko 4,30etatik 6etara emango dira. Jorrratuko diren gaiak atal ezberdinetan antolatu dituzte:

1. atalean, beherakoa, idorreria, lise-riketa.
2. atalean, eztula, katarroa, bronkitisa, gripea, asma, urduritasuna/estresa, loezina eta buruko mina.
3. atalean, artritis, artrosis eta erreuma, zirkulazio arazoak eta arnas aparatuko arazoak.

31

domeka

BERTSO JAIALDIA

Hiru txaldek antolatuta, urriaren 31an, gaueko 10etan, Zاراia zineman izango da. Bertara etorriko diren bertsolariak, Euskitze, Imanol Lazkano, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga. Gai jartzaile lanetan, berriz, Jon Sarasua ibiliko da. Sarrera 500pzta. alde zurreretik (tabernetan) eta 600 bertan.

LOGOPEDIA ZENTRUA

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 943 79 79 46
ARRASATE

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Jose Mari bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
Tfnoa: 943 79 20 45
Aretxabaleta

T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

IKASTAROAK

PERKUSIO TAILERRA

Arrasateko Gazteluondo Ikastolan, astelehenero arratsaldeko 6etatik 9etara. Hastapen eta sakontze mailak emango dira. Informazio gehiagoarako 943 79 80 25 zenbakira deitu eta Iñakitaz galdetu.

IGERIKETA IKASTAROAK HASTAPENA ETA HOBKUNTZA

Hastapen eta hobekuntza maila emango den igeriketa ikastaroa antolatu du kiroletxeak. Klaseak urriaren 19an hasiko dira, astelehenetik ostegunera bitartean 7etatik 7:45ra. Prezioa abonatuentzat 4.600 pezetakoa da eta gainontzekoentzat 6.100 pezetakoa. Izena ematea kiroletxean egin daiteke, 943 79 64 61 telefono zenbakian.



Behobia-Donostiarako autobusa antolatu da

NAFARROA OINEZ 98

Aurten urriaren 18an Zangotzan ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko Loramendi elkarteak bi autobus antolatu ditu. Bata zapa-tuan aterako da bertara laguntzera joango direnekin. Bestea, berriz, domeka goizean 8,30etan irten Errekabarrenetik eta ilunkarako 8etan bueltatuko da. Izen emateko azken eguna osteguna da 1.200 pzta.ordainduaz.

BEHOBIA-DONOSTIARAKO AUTOBUSA

Urtero moduan azaroaren 8an ospatuko den Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa antolatu nahi da Aretxabaletatik. 30 bat plaza egongo dira eta bertan bazkaltzea da asmoa. Autobusez joan nahi izanez gero, lehenbailehen izena eman behar da kiroletxean 943 79 64 61.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskalergia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Étxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorara	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

OPEL



Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65
/79 20 86 Fax: 943 77 17 20 ARETXABALETA



Graduatu soziala ikasi zuen Zaragozan eta zazpi urte-tatik hona Aretxabaletako Andra Mari aholkularitzan lan egiten du Roberto Aguilera.

Ezkondua eta sei hilabete-ko alabatxo baten aita da eskoriatzar hau. Bere afizioen artean irakurtzea eta bizikletan ibiltzea daude.

• Noiztik Andra Mari aholkularitzan lanean?

Badira zazpi urte sortu genuena.

• Zenbat langile zaudete bertan?

Egun osoz abokatu bat eta ni eta arratsaldetan neska bat etortzen da administrari lanak egiteko.

• Zer gustatzen zaizu zure lanetik gehien eta gutxien?

Bezeroekiko harremana eta ahalik eta ondoen aholkatzea. Gutxien erruak egitea. Baina nahi izanez gero dena konpontzen da.

• Zurea moduko lan batek egunean egotea eskatzen du?

Bai, derrigorrez. Legeak azkar aldatzen dira eta behar beharrezkoa da egunean egotea.

• Lan kontuak alde batera utzita, nolakoa da zure izakera?

Zabala naizela esango nuke eta lanerako serioa.

• Zer egiten duzu ordu libreetan?

Orain alabatxoaz denbora asko ematen dut. Bestela bizikletan eta lagunekin ibiltzea gustatzen zait.

• Zer behar da zoriontsu izateko?

Norberak duenarekin konformatu eta honi ahalik eta etekinik onena atera.

• Hauteskundetari botorik emango duzu?

Bai, jakina.

• Aholku bat.

Zorrak ordaintzea. Gaur egun administrazioak alde batetik edo bestetik kentzen ditu ordaintzen ez diren zorrak.

• Biziorik?

Afalostean zigarro bat erretzea.

• Orduan erretzailea zara?

Lehen bai, baina utzi egin nuen. Orain zigarro bat erretzeko ohitura daukat afalostean.

• Zer du ona irakurteak?

Irakurtzen ari zarela denbora atsegina pasatzen da. Gainera irakurtzea kultura da.

• Zuk zeuk irakurtzen duzu?

Bai, oherakoan ordu erditxo bat loak hartu aurretik.

• Zein idazle gustatzen zaizu?

Ken Follet.

• Ordenadorea, idazteko makina ala eskuz?

Orain ordenadorea derrigorrez erabili beharra dago lanean batez ere. Bestelako lanak nahiago ditud eskuz idaztea, eskutitzak esaterako.

• Zenbat telebista behar dira etxe batean?

Guk bi ditugu, txiki bat sukaldean eta bestea egongelan.

• Zein etxeko lan egiten duzu?

Sukaldean neu aritzen naiz, gainera asko gustatzen zait. Bestela, denetik egin behar izaten dut.

• Zein da ondoen gertatzen duzu platera?

Usoak eta bildotsa.

KOMIKIA

BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arriobe

Aretxagazeta



ALDIBI AUTOAK, S. A.



ALDIKAR AUTOAK, S. L.



GALLOPER

ALMOVIL, S. L.

LURROROTAKO ESKAINTZARIK ZABALENA NON?

ZATOZ Aldi bira



NISSAN TERRANO II



MITSUBISHI L200



NISSAN PICK UP



MITSUBISHI MONTERO



PATROL GR berria



GALLOPER

ETXE MOBEL

M U E B L E S

ALTZARIAK

**LOGELETAN
maisua**

**Zapata
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa
erakusketa**

Etxe Mobel, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia. Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE